

**EUSKAL EMAKUMEARI
DAGOKION ARDATZA**

M^a CARMEN BASTERRETxea

*Donostia, Euskal Herria

Emakumeari buruz ikuspegia ematea ez da erraza, orokorki era ezberdinetako emakumeak bait ditugu, alde batetik belaunaldien ezberdintasunak dauzkagu, belaunaldi bakoitzak bere garaia du, horregatik jendea eta eremu honetan emakumeok mugaturik gaude, beraz egoera politikoak, ekonomikoak, maila sozialak, hezkuntzak, aldameneko giroak e.a., emakume ezberdinak sortzen bait ditu, beste aldetik etniarekiko kulturak mugatzen bait gaitu, nazio bakoitzak bere izakerak ditu, hizkuntza, pentsakera, arazo historikoak e.a.

Honela, puntu horiek kontuan izanik, Emakume Euskalduna hasi nintzen aztertzen. Azterketa Euskal Herriko itsasaldean hasi nuen, beraz lehenbizi itsasaldeko emakumea ikertu nuen, baina eremu honetan, hau da, itsasaldean beste atal batzu aurki ditzakegu.

Horiek dira:

- ITSASALDEKO EMAKUMEA

(arrantzaleen alaba)

- ITSASALDEKO EMAKUMEA BASERRIAN

(baserrira ezkondu direnak)

- BASERRIKO EMAKUMEA ITSASALDEAN

(baserrian jaio, bizi eta gero arrantzale edo giro honetako gizoneekin ezkondu direnak)

Ikerketa honen helburua Euskal Emakumea izanik, eta jakiteko honen ardatza nolakoa den, belaunaldi ezberdinetako Emakumea aztertzea beharrezkoa zela pentsatu nuen. Horrela, sei belaunaldi horiek autatu nituen:

I - 80 urtetik aurrerantz.

2 - 70 urtetik - 80 urte arte.

3 - 60 urtetik - 70 urte arte.

4 - 50 urtetik - 60 urte arte.

5 - 40 urtetik - 50 urte arte.

6 - 30 urtetik - 40 urte arte.

Emakume horien bititza aztertzeke haien biografiak jaso nituen, era hori egokiena iruditu zitzaidan, biografian bizitzarekiko atal guztiak azaltzen dira, beraz biografiaren eskema hau da:

- HAURTZAROA
- GAZTAROA
- EZKONTZA
- HAURRAK
- EZKONTZA GEROZKO BIZITZA
- ZAHARTZAROA
- HILKETA

Orokorki kopuruaren aldetik esan behar da, 32 emakume aztertu nituela; eta herriak horiek izan ziren:

- Ondarroa, eta aldameneko baserriak (Bizkaia)
- Getaria, eta aldameneko baserriak (Gipuzkoa)
- Altzo (Gipuzkoa)
- Matiena (Bizkaia)

Orain izaera orokorreki buruz mintzatuko dugu; lehenbizi Itsasaldeko Emakumea aztertuko dugu, gero Itsasaldeko Emakumea baserrian, eta Baserriko Emakumea itsasaldean.

Biografiei buruz esan behar da izaera garrantzitsuenak jarriko dizkizuedala, baina ideia egokia edukitzeko biografia biren ezaugarri osoak azalduko dizkizuet.

ITSASALDEKO EMAKUMEA

Orain lehen belaunaldiaren ezaugarriak aipatzera noa:

Lehen belaunaldia 80 urtetik aurrera mugatzen dut. Emakume horiek jaio ziren garaia, ez zen ederra izan, aurrerakuntzak herriko jendeen artean ez zeuden, etxeko lanak eskuz egiten ziren, ur berorik ez zegoen, eta etxe askotan ura ere ez, kalean lana eskuz egiten zen. Jendearen artean pobrea ugari zegoen, herrietako jendea, orokorki, oso pobrea zen. Egoera horietan emakume horiek jaio eta hezitu dira.

- *Haurtzarora:*

Haienezat garai hau oso urruti dago, gaurko ikuspegitik ikusirik, beste kezka batzu dituzte, gainera haien bizitzan zehar une garrantzitsuagoak egon dira, eta garai horretan eskola eta honelako gauzak beste era bateko

garrantzia zuten, bizitzeko garai horretan, (1912), eskuko lana eskola baino garrantzitsuagoa zen. Honela haurtzaroko egoerak eta eskola, une garrantzitsuak bezala ez dira agertzen, beraz honi buruz ez diguta ezer esaten.

- *Gaztaroa:*

Garai honetan sendiaren egoera garrantzitsua da, haiek beti sendiaren egoera nolakoa zen aipatzen dute. Sendiaren egoera eta lana, maila horiek elkarrekin azaltzen dira. Batzuk, lana gaztaroaren lehen zatian hartzen zuten, lana esaten dudanean, soldata irabazten den lanari buruz nabil, beste batzuk gaztaroaren bigarren zatian hartzen zuten. Lehen zatia 9, 10, 11, 12 urteei deitzen diot, eta bigarren zaita hortik gora, 13, 14, 15 urtekoei deitzen diot. Etxeko zereginak gaztaroko lehen mailatik oituta daude egiten. Sendiaren egoera aipatzen dudanean, sendi bakoitzari dagokion egoera, osasuna, lana, eta egoera ekonomikoa azaltzen zaizkigu, bakoitzaren lana zein izan zen, kideen harremanak nolakoak ziren, e.a. Baina harreman horiek bizitza osoaren zehar azaltzen zaizkigu.

- *Ezkongaietan:*

Haien egoera lana egitea eta amari laguntzea zen, honela ordutegi mugatu bat zuten, astearen zehar ordu gutxi senar gaiarekin kalera irtetzeko zuten, eta beti gurasoarendik, bereziki amarendik, kontrolaturik zeuden. Kontrol hori ideologiaren kontrola zen eta erlijioaren pixua nabari zen.

Asteko egunetan ibilaldi motzak egiten zituzten, eta igandeetan asti gehigo zuten; baina beti ordutegia errespetatuz.

- *Ezkontza:*

Garai horretan ezkontzak etxean ospatzen ziren, lehengo goizean eliza eta gero etxera gozaltzera, emakumearen edo emaztearen etxera ospatzera joaten ziren. Honela gizona, orokorki, emakumearen etxera ezkontzen zen, emaztearen gurasoen etxera. Emakumearen etxean, bere gurasoak, aizpa edo anaia eta ezkondu berriak aurkitzen ziren. Ezkondu arte lanean jarraitzen zuten, eta ezkondu eta gero baita ere, lana ez zuten lagatzen.

- *Haurrak:*

Ezkondu eta berehala gehienetan haurdun gelditzen ziren, honela lana haurrak aurrera ateratzeko arazo garrantzitsua zen. Egoera honek ez zuen supozatzen ezer, haiek heuren lanarekin, bai etxean eta bai kalean jarraitzen zuten, erditzeko unean, edo galdu uneetan lana lagatzen zuten, bestela ez. Erditzeko garaia edo unea heltzen zenean, erditze hori etxean egiten zuten. Bizitza horietan, beste atal bat aipatzea garrantzitsua dela uste dut, atal hori gudako garaia da.

- *Ezkonduta gerozko bizitza. Guda garaia:*

Garai honetan emakume horiek hurrekin gelditzen ziren, egoera latz batetan, bereziki dirurik gabe, jakin gabe nora joan behar zuten, eta zer gertatuko zen.

Andra asko haien hurrekin gerrarengatik herritik irtetzera derrigorturik azaldu ziren eta beste tokietara joateko bidean aurkituz. Egoera honetan emakumeek haurren eta sendiko beste kideen ardura hartzen zuten. Guda garaia igaro zenean, emakumeak berriro lanera joaten ziren, eta sendiarekiko harremanak jarraitzen zituzten.

Bizitza arruntean haurren beste kideen egoera eta Osasuna garrantzitsuak ziren haientzat, baita haien kideren bat ondo ez bazen aurkitzen bai Osasuna edo baita diruarengatik, naiz eta etxe berdinean ez bizi, sarritan etxera ekartzen ahalegintzen ziren, eta emakumeek kide berrien ardura hartzen zuten. Haurren hezkuntza emakumeari dagokion gauza bezala sendiak ikusten zuen, emakumeek haurrak eskolara bidaltzen zituzten, eta haien egoeraz jabetzen ziren. Sendian, edozein, bai amona, edo gizona, kiden bat gaxorik gelditzen bazen, emakumea egoera honetaz arduratuko zen, baina egoera horiek aurrera eramateko, lana, haurrak, kideen ardura e.a., laguntasuna behar zuen, eta laguntasun hori bere izebaren (amaren aizpa), edo aizpen artean aurkituko zuen, gehienetan amaren laguntasuna nabari da. Beraz amona (amaren ama), laguntzaile bezala aurki genezake, eta sarritan zer egin behar zen, edozein arazoei buruz, esaten zion alabari. Haurren bataiak eta jaun hartzeak etxean ospatzen ziren. Haurrak gaztarora heltzen zirenean, eta bakoitzak zen lan egin behar zuen, edo bakoitzak zer lan nahi zuen e.a., egoera horretaz ama arduratzen zen. Kezka guztiak amarentzat ziren. Seme eta alabaren ezkontzak baita ere, amak prestatzen zituen.

Bizitza horietan etxe erosketak agertzen zirenean, emakumea tratuan jartzen zen, nola erosi, zenbatean. e.a., egoera horiek emakumeak eroaten zuen, eta tratuaren baietza emakumeek ematen zuten.

Gabonari buruz sendi osoak amaren etxean egun horiek igarotzen ditu, amonaren etxean ulertu behar da, amaren amanean. Seme-alabak gehienak haien sendiekin amonaren etxera egun horietan joaten dira.

- *Zahartzaroa:*

Orokorki, amona eta aitona haien alaba batekin gelditzen ziren alabak nahiz eta bere sendia eduki, gurasoen ardura hartzen zuen. Honela alaba hori bere gurasoen etxean, bere sendiarekin gelditzen dena zen, etxe horretan baita beste kide batzu aurki zintezkeen, izeba edo osaba ezkongabeak. Aitona eta amona hiltzen zirenean alabak bere sendiarekin etxe berdinean jarraitzen zuen, kide ezkongabeak berdinean etxe berdinean jarraitzen zuen, baina gehienetan alaba bat gurasoen etxera ezkontzen zenetik, gurasoen ardura beti emakume horrek zeraman, bai haien gaxoen arabeheran, eta heriotzaren aurrean baita ere.

- Hilketa:

Hilketaren aurrean, lur emateak, elizkizunak, otoitzak, e.a., etxean zegoen alaba arduratzen zen. Gurasoak hiltzen zirenean, alaba hau, gurasoekin etxearekin gelditzen zen, baina guraso horiek txaluparen bat edo, zutenean, seme-alaba guztik txalupa horretan parte berdina zeukaten.

Bigarren belaunaldia

Belaunaldi hau 80-tik 70 urte arte mugatzen dut, bitarte horretan aurkitzen diren emakumeek hartu ditut.

Lehen belaunaldiaren eta bigarren belaunaldiaren artean ezberdintasun handirik ez da igartzen, bizitzak garai horietan aldakuntza handirik ez zuen egin.

- Haurtzaroa:

Hemen berriro eskola ez da aipatzen, haientzat lanak zuten garrantzia, honela egoeraren arazoa nabaritzen da, gaztetatik lana bai etxean eta kaletan egiten ikasten zuten, gure herria garai honetan oso pobrea zen, eta hori, egoera honen islada da.

- Gaztaroa:

Sendiak gehienetan handiak izaten ziren, seme alaba asko, semeak itsasora eta alabek etxeko zereginak egiten zituzten eta sendian txalupa zegoenean, txaluparako tresnak prestatzen emakumeak ibiltzen ziren, kanpoko emakumeak edo neskak ekarri beharrean, haien alabak lan horietan sartzen zituzten, alobera handia ez zen izaten eta dena amari eman behar zioten, bai etxeko txalupan irabazitako dirua, eta baita ere beste tokietan irabazitakoa, eta etxera heltzen zirenean etxeko zereginak jarraitu behar zuten.

- Ezkongaietan:

Ezkongaietako harremanak mugatuak ziren, astean zehar irtetzeko aukera oso txikia zen, sendian txalupa zegoenean goizaldetan lana egiteko prest egon behar zuten, egunean lana eta gauean txalupa arrainaz etortzen bazen, kaian zain egon behar zuten. Orduan alde batetik lanaren arazoarengatik ordutegia mugatua zuten, eta beste aldetik erlijioaren pixuak haien harremanak mugatzen zituzten. Igandeetan dantzara joateko astia bazuten, baina, han, plazan erlijioaren defentsoreak egoten ziren, ikusten ea nola emakumeek dantza egiten zuten. Errepresio hori nabari zen. Ezkongaietan, gutxi gorabehera lau urte era horretan egiten zituzten, eta gero ezkontza.

- *Ezkontza:*

Ezkontza goizean izaten zen eta gero etxean gosaldu egiten zen. Batzuk bidai bat egiten zuten, bidai hori gehienetan haien osabeengana izaten zen, Bilbon edo Donostian egun batzu igaro eta gero Madriden edo beste non-baiten sendiak zituzten tokietan, haien etxetara joaten ziren.

Emakumeak lanean jarraitzen zuten. Emakumearen sendiak jende asko zuen eta honela ezkondu berrientzat, tokirik ez bazen etxean, beste etxeren bat lortu behar zuten.

- *Haurrak:*

Haurdu gelditzen zirenean, lanean berdin jarraitzen zuten, etxeko zereginak ere bai, berdin egiten zituzten. Emakume asko sarejosten edo beste lanak prestatzen ari ziren bitartean, galdu uneetan aurkitzen ziren, odolez beterik gehienetan, etxera joaten ziren, baina ondo aurkitzen baziren, lanean jarraitzen zuten. Erditze unea heldu arte haiek lanean jarraitzen zuten, erditzea etxean egiten zen, osagilea laguntza ematera joaten zen. Egoera hau igaro ondoren, astebete gutxi gorabehera lanean jarraitzen zuten.

- *Ezkonduta gerozko bizitza:*

Emakume gehienak seme-alaba asko eduki zuten, nahiz batzu galdu baina egoera hau aurrera eroateko, haiek laguntasuna amarengan aurkitzen zuten, edo ahizparengan baita ere.

Etxe berean bizi baziren, alobera amonari ematen zion, bera zelako etxeko gauzak prestatzen zituena, egoera hau, etxe berdinean bizi baziren ematen zen, bestela ez. Era batean senarremazteak aitonaren eta amonaren erabakietan gelditzen ziren. Haien bizitza etxeko zereginak eta lana zen. Haurren bataioak eta jaunhartzeak, etxean ospatzen ziren, gabonak amaren etxean ospatzen zituzten, amonaren etxean, amaren aman etxean.

Haurrak gaztaroara heltzen zirenean, eta haiek zer nahi zuten izan e.a., egoera horietaz, ama arduratuko zen, baita haien ezkontzekin ere, nola prestatu, zer eraman e.a. Etxean kideren bat gaxorik aurkitzen bazen, amak zainduko zuen.

- *Zahartzarora:*

Gurasoak zahartzarora heltzen zirenean, alaba bat haiekin gelditzen zen, nahiz eta ezkongabea izan, ez du ardurarik, beste batzuetan alaba bi geldi zintezkeen, eta baita ere anaiaren edo ahizparen bat ezkongabea.

Egoera honetan, emakumeak gurasoen eta anaiaren edo ahizparen arduratuko zuen. Gaixo edo beste arazo batekin aurkitzen baziren, alaba, egoera hori gainditzeko mugituko zen.

- Hilketa:

Gurasoak hiltzen zirenean, alaba lur ematearen, eta elizkizunen gora-beherak prestatzen zituena zen. Alaba hau, gurasoak zaindu zituena, etxea-ekin geldituko zen, eta beste kideren bat gelditzen bazen, honen eta etxearen ardura emakumeak hartuko zuen. Guraso horiek txaluparen bat eduki ezkeru seme-alaben eskuetara igaroko zen, eta seme-alaba guztiek haien zati edukiko zuten, zatiak berdinak ziren, bai gizonentzat eta baita emakumeentzat.

ITSASALDEKO EMAKUMEA BASERRIAN

- Emakume gehienak herri inguruan dauden baserrietara ezkondu dira, baina urruti dauden baserrietan baita itsasaldeko emakumea aurki dezakegu nahiz eta kopurua handia ez izan, urruti esaten dugunean, bere herritik 50 kilometrotara gutxi goabehera kokatzen dut, eta ingurua aipatzen dudanean, bere etxetik bost kilometrotara gutxi gorabehera aipatzen dut.

Emakume horiek arrantzale girokoak dira, haien gurasoak arrantzaleak izan dira, batzuen amak arrain saltzaileak baita ere, horiek giro horretan hezitua izan dira, eta horrela kultura batean mugatuak daude, kultura hau, baserrira heltzen direnean nola gelditzen den jakitea oso interesgarria da.

Aztertu ditudan emakumeak adin ezberdinetakoak dira, baina nahiz eta norberak adin zehatz batzuek nahi bilatu, errealitatean aurkitu dugun mailakin elkartu behar gara, egoera hau azaltzen zaigu emakume honen kopurua txikia delako, eta hemendik aurrera kopuru hau gehiago jetsiko da, baserriak krisian daudelako eta gurasoek haien haurrentzat beste helburuak dituztelako, horregatik errealitatean aurkitzen dugun pertsonekin azterketa egin behar dugu. Beraz, emakume horien bizitza gaur egun nolakoa den aztertzen ahaleginduko gara.

Emakume horiek baserrira ezkondu ziren komunikazio bat eman zelako, baserriak itsasaldearekin eta itsasaldeak baserriarekin harremanak daukazelako.

Itsasaldeko emakumeak arraina saltzera erbestera joaten ziren, lehena kalez kale orain duela berrogei urte, edo herrietako plazeetan, baita baserrietara heltzen ziren, goizaldean haien herritik irten eta gauean etxera itzultzen ziren, honela emakume batek baserrietara joaten, bere senarra ezagutu zuela esan zidan, beste emakume batzuk senarrek haien herrian ezagutu zituzten, baserri asko herrietatik oso hurrean daudelako, eta honela baserriko jendea erosketak edo haien produktuak saltzera herrira joaten dira, beraz, harreman horietan emakumeak ezagutu eta haiekin ezkondu ziren.

Emakume horiek baserrira ezkondu ziren, baina baserriko gauzarik egiten ez zekiten, abereak moldatzen edo nekazaritzari buruz ez zekiten ezer, orduan emakume horien hasiera, gauza horiek ikastea zen, hasi zirenean ikasten hanka sartze handiak edukitzen zituzten, batzu hanka sartze horie-

taz oso ondo oroitzen dira, eta aipatzerakoan barrealgada handiak botatzen dituzte, baina hasieran hori haientzat ez zen erreza izan, baserriko gauzak, lanak, e.a., ikasi ondoren emakume horiek oztoporik ez zuten eduki, gaur da egunalan horiek egiten jarraitzen dituztena.

Emakume horiek ezkondu zirenetik, haien aldetik borondate handia jarri zuten, borondate hau baserriko lanak ikasteko beharrezkoa zen eta honela borondate horrekin baserriko lanak egiten ikasi zuten.

Baserrira ezkondu zirenean, baserrian gizonaren gurasoak eta anaiaren bat, edo arrebaren bat, baita osabaren bat aurki zezaketen, honela emakumea beste kideekin topatzen zen.

Emakume horiek ezkondata berehala haurdun gelditzen ziren, eta batzuk haur asko ekarri zituzten, horrela haur horiek aurrera ateratzeko ekonomia gogortu edo handitu behar zen, beraz senar batzuk baserritik kanpora lana bilatzera derrigorturik aurkitu ziren, beste baserri batzu nahiz eta haur gutxi eduki, adibidez bi haur, era berdinean aurkitzen dira, egoera honetan baserria nolakoa den behi asko baditu, edo nekazaria bakarrik bada edo maila biak baditu garrantzi handia dauka. Honela batzuetan nahiz eta haur gutxi eduki baserriaren egoera ekonomikoak gutxienezko bat ez badu ematen, gizona derrigorturik aurkitzen zen, baserritik kanpora lan bat bilatzen. Orduan alderdi batetik sendiaren egoera, haurrak e.a., eta beste aldetik baserriaren posibilitate ekonomikoa batzen dira, baserritarrak bere etxetik kanpora lana bilatzera joan behar duenean.

Beste lanpostu baten beharrean aurkitzen zirenean, baserrian emakumeak baserriaren pixua eramaten azaltzen da, horrela emakumeak baserrian, etxeko zereginak eta haurrak aurrera atera behar ditu. Badaude baserri batzuk egoera honekin topatu ez direnak, emakumea eta gizona biak baserriko lanak egiten jarraitzen dutenak.

Baina gure garaiekin jarraiturik, gizonak baserritik kanpo lana egiten duenean, maila honetan itsasaldeko emakumea, baserriko lanarekin, etxeko zereginak eta haurrekin gelditzen da.

Beste baserri batzuetan egoera hau ez da azaltzen eta orduan, itsasaldeko emakumeek, etxeko zereginak eta haurren ardura hartzen zuten, baserriko lanari buruz gizonaren laguntzaile bezala azaltzen da.

Emakumeak laguntasuna badu, lehen esan dugu baserrian senarraren gurasoak, eta beste kideren bat aurkitzen direla, gizonaren amak oso nagusia ez bada laguntza etxeko zereginetan emango dio, baita aitonak eta beste kideak baserrian lanean jarraituko dute, gurasoak hiltzen direnean eta kideak ezkontzen direnean, edo hiltzen direnean, orduan emakumea bere haurrekin bakarrik azaltzen da, beraz garai bi azal daiteke, bata, kideak baserrian bizi direnean eta bestea kide horiek ezagertzen direnean.

Haurrak, orain duela gutxi gorabehera hogeitamar urte, baserrian edukitzen ziren, erditzea baserrian izaten zen, gerozko egoera haurrak hospitallean edukitzea da. Erditzeko unea etorri arte emakumeak lanean jarraitzen zuen, haurra eduki ezkeror zortzi egun igaro ondoren, emakumea berriro lanean ari zen.

Haurrak eskolara bidaltzen ahalegintzen dira, haiek heuren haurrak estudiatzea nahi dute, heurak baino gehiago bizitzen izan dadin. Gabonak, bataioak, jaun hartzeak, e.a., ospatzen dira, emakumeak ospakizunak, eta haurren heziketa buruzko arazoz arduratuko da.

Itsasaldeko emakumeak bere sendiarekin harremanak edukitzen jarraituko du, bai bere herritik kilometro gutxi badaude, edo alderantziz, nahiz eta bere herria hirurogei kilometrora egon, harremanak jarraitzen dute.

Herritik kilometro gutxitara baserria badago, astean behin gutxienez, bere ahizparengana edo amarengana joango da, baserria urrutiago bada, harremanak beste era batetan jarraituko dute, baina harremanak mantentzen dira, oporretan edo jaietan bilduko dira. Haurrak nagusiak direnean, baserriko arazoei buruz ez dute ezer jakin nahi, haiek lantegi edo denda batean lana egitea nahiago dute, zortzi ordu lan egin eta kitto.

Gurasoek haien seme-alabei estudioak ematen ahaleginduko dira, beti buruan edukiz gurasoak baino listuagoak izan behar dutela.

Ondareari buruz, haientzat dena seme-alabeentzat izango da, neska edo mutila izateak ez du garrantzirik, haientzat zein gelditzen den baserrian garrantzitsuena da, horrela haiek seme edo alaba horrekin geldituko direnetik seme edo alaba horrek zati handiena edukiko du. Orduan gurasoak haien zahartzaroan zeinek zainduko duen baloratzen dute.

Itsasaldeko emakume batzu haurrak nagusiak dituzte eta gehienak ez-konduta dauzkate, orduan amona eginda daude, eta haien alabak amonarekin harremanak, jarraitzen dituzte, gehienetan amonari lobak zaintzeko eramaten dizkiote.

Propietate buruz, txal bat saldu edo erosi, honelako arazoetan, edo lurra saldu edo erosi e.a., emakumeak parterik ez du hartzen, gizonak erabakia hartzen du, emakumeak bakarrik erabaki hori egiten lagundu egiten dio, beraz hitza, gauza bat egiteko, bai erosi edo saldu, propietateari buruz gizonak dauka, emakumea laguntzaile bat bihurtzen da.

Senaremazteak gazteak direnean, senarraren gurasoak, orokorki, ez dira hain zaharrak, orduan baserriaren arazoak senarraren gurasoak daramate, bereziki senarraren aitak, eta hitza aitak du, baserriaren propietateari buruz edo dozer gauza zaltzeko edo erosteko aitak hitza du, baserria bera delako, semeak hitza hartuko du, bere aita baserria eroateko gauza ez denean, eta emakumea gizonaren laguntzaile bezala, aurki dezakegu.

Komunikazioari amaiera emateko, itsasaldean komunikazioa itsasaldeko baserrien eta herri arrantzaleen artean dagoela nabari da. Gehienetan beharrak egiten duen harremana da, baina hor dago.

Beste komunikazioa garbi ez dena ematen, itsasaldeko herriek barneko baserriekin da; adibidez, Lekeitio eta Beasaingo baserriek; hemen harremanak ez dira azaltzen. Horregatik batzuentzat baserriak eta itsasaldeak ahuztura bat dute, baina ahuztura hau distantziarengatik ematen dela azaltzen zaigu.

BASERRIKO EMAKUMEA ITSASALDEAN

Aipatu dugun bezala, jaiο eta bizi zaren tokian heziketa hartzen duzu, heziketa horretan kultura bat kokatzen da, oiturak, erak, e.a., beraz kultura baten jabe egiten zara.

Honela baserriko emakumeak kultura bat du, emakume honek bere heziketarekin, bere bizitzaren une batean baserritik irten egin behar du, irtera honen arrazoa gehienetan egoera ekonomikoan oinarritzen da, baserrian seme-alaba asko daudenean, denentzat tokirik ez da aurkitzen, horrela seme-alaba batzuk heuren bizimodua aurrera ateratzeko baserritik irten egin behar dute.

Beraz aldameneko herrietara jeisten dira, eta lana egiterakoan ezagutzen duen lana egingo dute, gehienak neskame, edo taberna batean serbitzen hasiko dira. Egoera honetan herriko mutil bat ezagutu dute, eta handik urte batzutara ezkondu egingo dira. Baina gizona itsasokoa bada, gutxienez kaian lana egiten duena bada, emakume hau nola moldatzen den bizi berrira jakitea garrantzitsua da.

Baserriko emakumea ezkontzen denean, bere lana neskame edo tabernako lana laga egiten du, beste aldetik ezkondata berehala haurdun gelditzen da, gehienak ezkontzen direnean, senarraren gurasoen etxera ez dira ezkontzen, senaremazteak heuren etxea dute, honela senar-emazteak bakarrik bizi dira.

Emakume horiek, lehen, haurrak etxean edukitzen zituzten, eta orain ospitalera joaten dira.

Haurrak eduki ezkerο, eta haiek bizkat heltzen direnean, emakume hau berriro lanean hasiko da, baina lana lehengoa ez da izango, lan berri bat aurkitzeko eran egongo da, lan hori gehienetan kontserba lantegian edo baita kaian lana egitea da, beraz lan berri horrekin itsasaldeko giro horren partaide da.

Emakume horien kopurua eta kaian lana egiten dutenen kopurua, oso txikia da, gainera, gizarteko status ekonomikoa altza egin denetik, orokorki, halako behar handia emakumeak lana egiteko ez du orduan emazteak etxean egoteko lasaitasun bat du, behintzat haur txikiak eduki ezkerο. Baserrietatik herrietara emakume asko jetsi dira, baina denak itsasaldeko lanetan ez dabilta.

Baina, baserriko emakumea itsasaldeko lanekin harremandurik eta baita bertan lana egiten dutenekin jarraturik, nahiz eta kopurua txikia izan, emakume horiek etxeko zereginak, haurren heziketa, eta lana, adibidez karga deskarga e.a., eramaten dituztela esan beharko da.

Gizona edo senarrak bere lana egiten du, arrantzalea bada, noski egun gehienak itsasoan daramatza; eta senarra lehorrekοa bada, saregilea edo etxean egunero ari da, baina nahiz eta etxean azaldu bakarrik bere lanaz arduratuko da. Arrantzaleak eta baita giro honetan lana egiten dutenak, haur-

tzaroatik beti ikusi dute haien amak etxeko zereginak, lana, eta haurren heziketari buruz arduratzen zirela, baita gizarte mailan zerbait egin behar bazen, edo zerbait erosi e.a., amek gauza horiek egiten zituztela, orduan senarrentzat emakumeak eta maila honetan, haien emazteak gauza horiek egitea, ohizko gauza bezala topatzen dute.

Orduan senarra bere lanaz arduratuko da, eta bere emazteak etxeko zereginak, lana eta haurren heziketa aurrera atera behar ditu, bere gainean arduratzen da, eta baita zerbait erosi edo aukeratu egin behar bada, gehienetan senarraren baietarik gabe gauzak egiten dituzte, emakumea hemen bakarrik ez da laguntzailea baita erabakiak hartzen ditu.

Emakume horiek sendiarekin harremanak mantentzen dituzte, gainera baserria herritik hurrean badago, sarritan haien haurrekin baserriara joango dira, baita emakumeak bera aizpekin harremanak jarraituko ditu nahiz eta beste herrietan ezkondu egon, gehienetan sendi baserrian bilduko da.

Senarrak ahal duenean baserrira joango da. Gabonak heltzen direnean, gabon eguna emaztearen gurasoekin baserrian ospatzen dute, eta gabon zaharra gizonaren gurasoekin igarotzen dute. Bataioak eta jaun hartzeak baita ospatzen dira, eta sendi osoa biltzen da, bai emakumearen aldekoak, eta baita ere gizonaren aldekoak, ospakizun horiek emazteak prestatzen ditu, dena bere kontuan gelditzen da.

Emazteak gauza guztiak aurrera ateratzeko, etxeko zereginak, lana eta haurrak, norbaiten laguntasuna behar du, eta hemen laguntasuna gizonaren amak, edo gizonaren ahizpak emango dio, amainarrebak eta koinatak, gehienetan haurrak zaintzen dizkiote.

Herriko jaiak direnean, ahal badu, emazteak bere gurasoak herrira ekarriko ditu.

Emakumea ezkontzen denean bere lagunekin harremanak gehienetan moztu ditu, baina gizonak ez, gizona lehorrekoa bada, lehorrean bere denbora librean lagunekin bilduko da, arrantzalea bada, lehorrean egun gutxi egingo ditu, baina lagunekin biltzeko ordu batzu edukiko ditu.

Ondareari buruz hitz egiterakoan, haientzat neska eta mutilaren artean ezberdintasunik ez daude, etxean zerbait badago, denentzat zati berdina izango da, propietate edo dirua bada, denak zati berdina hartuko dute, baina beti etxean gelditzen denak garrantzi handiagoa du, maizago alaba da etxean gelditzen dena, mutila bere emaztearen etxera ezkontzen delako, horrela alabak, etxean gelditzen den alabak, gurasoen ardura jasoko du, eta horregatik gurasoak alaba honi zati handiagoa ondaren lagako diote.

Beste belaunaldietan ardatza gutxi gorabehera antzekoa da, nahiz eta puntu zehatz batzuetan egoera aldatu, adibidez, bostgarren eta bereziki seigarren belaunaldian, etxean bizi den alabak ez dio alobera amari ematen (amonari), alaba bere eta senarraren aloberakin gelditzen bait da. Gero aldakuntza teknikoak baditugu, adibidez, erditzeko ulean ospitalera joaten dira emakumeak, ez dute haurrik etxean edukitzen e.a..

BALORAZIOA

Orain egoera hau azaldurik, puntu garrantzitsuenak eskema bezala aipatuz, horiek dira:

- Emakume honen heziketa, eta beraz haurtzaroa, nola amaren eta amonaren eskuetan azaltzen den.
- Emakumea itsasaldean gurasoen etxera ezkontzen bait da.
- Emakumeak sendiarekiko harremanak, eta kideen ardura hartuko du, baita ere arazo ekonomikoa, haurren heziketa, etxeko zereginak, gurasoen ardura, gizartearekiko arazoak, bere lana denak eramango ditu.
- Amonaren posizioa, berezia sendiaren barnean.
- Ondarean emakumearen garrantzia.

Hau ikusirik, itsasaldean matrialitate baten alde abokatzen dut beraz matrilinealitatea itsasaldeko gizartean errealitate bat da, nahiz eta honen eremua estua izan, bakarrik sendi euskaldunetan ematen delako eta lan zehatz batzuei inguratutik. Matrilinealitate hau hemendik ehun urtera ez dakit nola aurkituko den, gaurko gizartearen norabideak harremanak sendiari inpozatzen dituelako, eta beti eremu txiki horrek, aztertu dugunak gizartearen eraginari ezin dio ihes egin, beraz aztertu duguna azkeneko hondarrak kultura bati dagozkionak direla esan ditzakegu.

Erabakiari dagokiona, lan egiten duen emakumeak, eroslea, saltzailea, kontserba lantegian lan egiten duena, edo saregilea bada eta bere gizona arrantzalea, edo baita lehorrekkoa bada, baina beti kaiari loturik, emakume horrek gehienetan, eta arazo garrantzitsuenetan berak erabekia hartuko du, emakumeak lana ez badu egiten ez dakit norarte erabakia hartuko duen, baina aukera badu, eta aukera hori gozina arrantzale girokoa bada gehiago izan daiteke.

Emakumea armadorea denean berak du hitza. Beraz matrialinitatea, emakumearen eskuetatik etxeko organizazioa agertzen denean, gizartean partaidea izaten denean eta erabakiak hartzeko eta egiteko maila ematen direnean da, honela egoera hau itsasaldeko sendietan, ez denetan, baina bai multzo batean, eman daiteke.

Orain itsasaldeko emakumea baserrira ezkontzen denean bere eremua nola gelditzen den aipatu behar dugu.

Emakume hau ezkontzen da, baina baserriari buruz ez daki ezer, beraz baserriko kideek, gurasoek, edo senarrak baserriko araberek erakutsi egin behar dizkio, honela lehen garaia ikasten igaroko du, alde berean etxeko zereginak, haurren heziketa, eta gizonaren gurasoek gaisorik badaude, horri buruz emakumea arduratuko da. Itsasaldeko emakume gehienak ezkondu baino lehenago bere senargaiari baserrian zer ez duten egingo esaten diote, adibidez, batzuk abereengana ez direla hurreatuko, ez direla herrira esnea

saltzera joango, e.a., baina azkenean kortan abereekin amaituko dute, eta besteek esnea herrian saltzen, nahiz eta ezkondu aurretik baldintza batzu jarri, beraz emakume horiek baserrira egokitu dira, eta askok baserritarrak ez direnik ez lukete esango, emakume horiek haien sendiarekin harremanak mantentzen dituzte, eta gabonetan emakumea bere senarrakin, urruti ez badaude, eta hurrekin, amonaren etxera joango dira, jaietan ahal badute ere bai.

Baserrian lana egunero egiten du, eta gizonaren gurasoak bizi direnean artean baserrian gurasoek agintzen dute, gero honen jabea bere senarra izango da, eta emakumeak lanean berdin jarraituko du baina bere lanaren fruitua ez da diruan emango, honela berak dirurik ez du, itsasaldean, berak lana egiten badu, ez bada adibidez sendiaren txaluparen bat, lanarengatik dirua hartuko luke.

Sendian txaluparen bat edo beste negozioren bat zegonean, adibidez 1900, 1920, 1930 e.a., bereziki semealaben gaztaroen diruarekin gurasoak gelditzen ziren, baina gaur egun hau ez da gertatzen.

Honela baserrian emakumeak dirurik ez du, ez du soldatarik. Gero baserriari dagozkion erabakien aurrean, lurra saldu edo behi bat erosi, e.a., senarrak erabakiak hartuko ditu, nahiz eta gehienetan, gaur egun, emakumeari kontsulta egin, lehena (1900, 1920, 1940), gizona bere irabaziarekin, alde batetik ibiltzen zen, eta emaztea plazan, hartzen zuen diruarekin etxe-ko, edo baserriko egoera atera behar zuen, egoera hau emakume horietan ez da azaldu, belaualdi ezberdinak direlako izan daiteke, baina nahiz eta kontsulta egin erabakiak gizonak hartzen ditu, emakumeen erabakiak beste maila batean doaz, emakumeak zerbait behar duenean lana egiteko berak erosiko du, gizonari permisorik ez dio eskatuko, edo zer behar duen esango dio, baina baserriaren propietateari buruz edo gauza garrantzitsuen buruz senarrak erabakiko du.

Beraz itsasaldeko emakumearen eremua mugatua aurkitzen da, berak bere sendiarekin harremanak edukiko ditu baina bere maila soziala oso estua izango da, itsasaldean bere lanarengatik maila soziala handiagoa da, eta beste aldetik erabakien boterea ez edukieran, bere eremua mugatua azaltzen da.

Baina baserriko emakumea arrantzale batekin ezkontzen denean bere eremua nolakoa den ere ikusi behar dugu, emakume hau arrantzale batekin ezkontzen denean haiek etxe bat erosi edo alokatu egiten dute bizitzeko, gizonaren gurasoen etxera ez dira ezkontzen, behintzat gehienetan, emakumea etxe-ko zereginak, haurren heziketa bere lana, aurrera eramango ditu, lana kaian egingo du, eta problemarik ez du edukiko, oso ondo moldatuko da. Gizartean agertzen diren gauzekin arduratuko da, sarri berak erabakiak hartuko du, orduan emakume honen eremua iriki egiten da, gainera bere gizona oituta dagoenetik bere sendieko emakumeak gauza guztietaz arduratzen, eta erabakiak hartzen baita ere, emazteari lagako dio arazo guztietaz arduratzen, beraz, baserriko emakumearen eremua iriki egiten da, bai he-

rrian bizi delako, eta oiturak ematen dion eremuarengandik, beste aldetik emakume honek lana egineran botere bat du, diruak ematen duena, eta erabakiaren aurrean indar handia daukana.

Orduan baserria bere ingurunearengatik mugatua gelditzen zaigu, eta muga horiek pertsonen bizitza kokatzen dute, beraz baserrian emakumeak sendiarekiko harremanak, beharrak, heziketa, lur emateak, ezkontzak, e.a., eramango ditu, baina, bere eremua erabakien mailan, propietatea ikutuz, baliogabekoa da.